

ZG PRO 2023

ZG/PRO Zinegoak Nazioarteko LGTBIQ+ Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren industria-programa da. Lau edizio daramatzagu LGTBIQ+ zinemaren eta haren sorkuntzan, ekoizpenean eta banaketan parte hartzen dutenen ikusgaitasuna eta sustapena lantzen, ikus-entzunezkoen eta kulturaren bitartez eraldaketa soziala eragiteko premisari jarraituz.

Industria-esparrua hiru helbururen inguruan antolatzen da: ikus-entzunezko heziketa eta sexu-, identitate- eta genero-aniztasuna; audientzien garapena, master classen eta tallerren bidez, Bizkaiko zinema-eskolekin eta UPV/EHUrekin elkarlanean; eta martxan dauden LGTBIQ+ proiektuen sustapena, ZG/PRO WIParen bitartez.

Work in Progress egitasmoa profesionalen eskari batetik sortu zen, beharrezkotzat jotzen baitzuten ekoizten ari zen queer zinema sustatzeko esparru espezifikoa izatea. Zinema bat non beste errealitate batzuk eta gure ingurunearekin erlazionatzeko eta adierazteko moduen aldaketak islatzen diren, ikus-entzunezko industria, audientziak eta jaialdiak ere tartean sartuta.

Alde horretatik, WIP esparruak badu beste jaialdi batzuen sostengua: Europako hegoaldeko LGTBIQ+ jaialdien sarea, Queer Lisboa eta Queer Porto, Mix Milano, Parisko Chéries-Chéris, Tesalonikako G.L.A.D. eta Zinegoak elkartu egin dira, queer zinemarako esparruak elkarrekin garatzeko sare bat sortzea helburu.

2023ko ZG/PRO WIP esparrua INCOPRODUCTION plataformaren bidez kudeatuko da. Parte hartu nahi duten proiektuek, beraz, plataforma horretan eman beharko dute izena. Gero, pitching formatuan aurkeztuko dira hautatutako proiektuak, jaialdiko egun batean. Gehienez ere ekoizpen-fasean dauden 6 proiektu hautatuko dira, eta ZG/PRO saria jasoko du haietako batek. Sektoreko zenbait profesionalak osaturiko epaimahai batek erabakiko du saria, eta Music Library & SFX-k emango du.

ZG/PRO-N PARTE HARTZEN DUTEN PROIEKTUEK HONAKO OINARRI HAUEK BETE BEHARKO DITUZTE

- LGTBIQ+ gaiei buruzko lanak izatea.
- Produkzio- edo postprodukzio-fasean egotea.
- Espainiako estatuan bizi diren errealizadoreak eta ikus-entzunezko enpresak izatea, 18 urtetik gorakoak.
- Balioa emango zaio ekoizle bat izateari.

Produkzio-fasean dauden proiektuak:

- Fitxa teknikoa
- Sinopsi labur bat eta teaser-a (4 min gehienez ere)
- Espainiako estatuan bizidiren ikus-entzunezko errealizadoreak izatea, 18 urtetik gorakoak.
- Balioa emango zaio ekoizle bat izateari.
- Gaztelaniaz eta ingelesez aurkeztu behar da materiala.

Saria :

- Networking-a eta jaialdien sarean ikusgaitasuna izatea.
- ZG/PRO 2023 master classean parte hartzea.
- ZG/PRO saria, ZG/PROko epaimahaiak erabakia eta Music Library & SFX-k emana.*

ZG/PRO saria AudioNetwork eta AltMusic ekoizpen-katalogoetan eta 360° musika-ikuskaritzako zerbitzuetan sartzeko tarifa finko bat izango da. Horrez gain, saridunak deskontuak izango ditu musika komertzialen eskubideak negoziatzeko karguetan eta estudio eta SFX horniduretan, 1.500 €-raino.

Postprodukzio-fasean dauden proiektuak:

- Fitxa teknikoa
- Sinopsia
- Teaser-a (10-15 min gehienez ere).
- Espainiako estatuan bizidiren ikus-entzunezko errealizadoreak izatea, 18 urtetik gorakoak.
- Balioa emango zaio ekoizle bat izateari.
- Gaztelaniaz eta/edo euskaraz aurkeztu behar da materiala.

Izena emateko epea: maiatzaren 2tik ekainaren 4ra (00:00 h).

PROIEKTU BATAURKEZTEAKARAU GUZTIOKONARTZEA DAKAR, BAITA ANTOLAKUNTZAK EZUSTEKOEN AURREAN HARTZEN DITUEN ERABAKI GUZTIAK ERE.

Deialdiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: zgpro@zinegoak.com. Plataformari buruzko zalantza teknikoak edo gorabeherak argitzeko: info@incoproduction.com.